

**ENPRESAK.** Euskal enpresak Benecol esnekia jarri du merkatuan



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Eduardo Urrutia Iparlateko kontseilari ordezkaria, Raisioko arduradunekin, atzo, Bilbon.

# Iparlaten etekinek %34,6 egin zuten gora 2002an

Akordio bat egin du Finlandiako Raisiorekin, kolesterola gutxitzen duen esnekia egiteko

Joseba Aiartza | **BILBO**

Iparlatek, Kaiku markako esnekiak merkaturatzen dituenak, 240 milioi euro fakturatu zituen iaz, aurreko ekitaldian baino %18 gehiago, eta haren etekinak 1,89 milioi eurora iritsi ziren, %34,6 gehiago. Aurtengo ekitaldian, Iparlatek %15eko hazkunde aurreikuspen du, batak bat iragan urtarilean lortu-

tako «salmenta kopuru historikoari» begiratuta, Eduardo Urrutia enpresako zuzendari eta kontseilari-ordezkariak atzo adierazi zuenez.

Datu horiek Finlandiako Raisio enpresarekin sinatutako akordioaren ostean jakinarazi zituen Urrutiak atzo. Akordio horren arabera, Iparlatek *Benecol* izeneko esnekia merkaturatu du. Benecol hori jogurt li-

kidea da, eta ahalmen garrantzitsua dauka: kolesterol maila jaitsarazten du. Izan ere, egindako ikerketa zientifikoen arabera, produktu hori egunero kontsumituz gero, bi astean, odoleko kolesterol maila %15 gutxituko zaio kontsumitzaileari.

Produktua merkatuan dago dagoeneko, Iparlatek, Finlandiako Raisio eta Suitzako Emmi esne enpresek merkaturatua. Arduradunen arabera, esnekiak daukan estanol izeneko landare-osagarria da kolesterola gorputzetik botatzen duena.

**BURTSA.** Urteko minimo berria jo du, 1.084 milioi euroren salerosketarekin

## Goya, gu eta gutarrak

J.B.Andueza |


Espanian Goya sarien banaketa buruz polemika, gu ibaiek goia jo zain eta Colin Powell gutarra NBEn biltzarreko antzezlanen izan ziren atzo.

Kotizazioek, ordea, adierazpen askatasuna noiznahi baliatzen dutenez, guda hotsen ubideari segi zioten: AEBtan Daimler-Chrysler eta munduko aseguru etxe handiena den American International Groupen emaitza kaskarrek Dow Jones errekan behera bultzatu zuten.

Animazio horrekin, urteko minimo berria: Sogecablek %8 pasa eta Acerinoxek, Arcelorek eta BBVAk %4na pasa galdu zuten, Amadeusek eta SCHk %3na pasa. %2 pasa jaitsi ziren Telefonica, Moviles eta Endesa, kasu.

**Bilboko 2000 indizea**

Diferentzia **-2,36** | Azken indizea 1.057,75 | Aurreko indizea 1.083,36



**Beste indizeak**

New York (Dow Jones)*	7.975,99 (-%1,65)
Tokio (Nikkei)	8.484,90 (-%0,19)
Madrid (IBEX-35)	5.872,90 (-%2,40)
Paris (CAC-40)	2.863,50 (-%3,19)
Londres (FTSE 100)	3.590,10 (-%2,69)
Frankfurt (DAX)	2.632,98 (-%4,32)
Milan (Milbel)	16.514 (-%2,58)

**Dibisen merkatua**

Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (AEB)	10822
Libera Esterlina	0,6571
100 Yen (Japonia)	1,2995

**DATUA**

**Alcatel** (-%7,74) telekomunikazio enpresak 4.745 milioi euro galdu zituen iaz. Duela urtebete 17 euro pasa balio zuen akzioak 6,2 baino ez zituen balio atzo Parisen. Zuntz optiko eta sareen negozioak direla medio, salmentek ere beherako joera dute. Jarduerak berak 727 milioiren galera eragin zuten.

**LABURREAN**

**Siemensekin bat egin du CAFek, Renferen 40 treneko kontratu bat lortzeko asmoz**

Renferen aldiriko 40 tren egiteko eskaintza bateratua egin zuten atzo CAFek eta Siemens. Kontsultorioak Alstom frantziarrarekin lehiatu behar du kontratu horretan. Renfek emateko duen bigarrenen —beste 40 trenekoa—, berriz, aurrez aurre izango dira CAF eta Alstom, Siemens ez baita lehiatuko. Hasiara batean eskaintza egitera gonbidatutako Bombardierrek eta Ansaldo ez zuten, azkenean, parte hartu. CAFek Renferen kontratu ugari lortu ditu azkenaldian: Abiadura Handiko Madril-Bartzelona lineako 16 tren egingo ditu Alstomekin eta Siemensekin batera, beste 20 AHT Alstomekin elkartuta, eta hainbat trenbide-neurritara egokitzeko beste 12 egingo ditu —Alstomekin horretan ere—. Halaber, eskuratu nahi ditu hainbat neurritara egokitutako 44 lokomotora. Azken proiektu horretan Talgo-Bombardier bikotea izango du lehiakide.

**Arrantzaleek gobernurik gabeko bilera egingo dute Arcachongo itunaz**

Bizkaiko golkoko arrantzaleek bilera egingo dute datorren astean, Frantziako eta Espainiako gobernuak Arcachongo ituna negoziatzeko elkartu aurretik. Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleen helburu nagusia da Lapurdiko eta Frantziako arrantzaleei 9.000 tona antxoako kuota berriro ez ematea. Kuota berri-tuko balitz, ordainean zerbait eskatuko dute.

**Confebaskek uste du 2003an langabezia tasa ez dela gehiago apalduko**

Jose Guillermo Zubia Confebaskeko idazkari nagusiaren arabera, 2003an ez da enplegurik sortuko Araban, Bizkaietan eta Gipuzkoan. Langabezia tasa ere bere horretan geratuko da. Halaber, Zubiak uste du hiru herrialde horietako ekonomia %1,9-%2 haziko dela aurtentzen. Espainiako Gobernuaren aurreikuspena —%3 lehenik eta %2,5 ondoren— «baikorregia» iruditu zaio.

**AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA**  
ELIZATEKO UDALA

<p><b>IRAGARKIA</b></p> <p><b>HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORREKO 24 C ARLOAN (UDONDO BULEBARRA) LURRA BERRIRO ZATITZEKO PROIEKTUA HASIERAN ONESTEA</b></p> <p>03-01-27an honako iragarki hau igorri da BAOera han argitara dezaaten:</p> <p>*03-1-21ean UGBak egin zuen bilera hartutako XX ebazpenaren bidez Leioako Udalak honakoa ebatzi du:</p> <p>* Hasieran onetsiko da hiri antolamenduko plan orokorreko 24-C arloan (Udondo bulebarrak) lurra berriro zatitzeko proiektua. Sektore hori hirigintza arloan kudeatu nahi duten hainbat jabe eta sustatzaileek aurkeztu dute proiektu hori.</p> <p>* Espedientean interesa dutenei (jabeak eta eskubidez titularrak direnak) banaban emango zaie proiektuaren berri. Horrela ba, interesdunei eman beharreko entzundaldi tramitearekin betetzeko 20 eguneko epean, jakinarazpena bidali eta biharamunetik zenbatuta: nahi dutenek proiektua aztertze aukera izango dute eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Argi utzi behar da arloaren jabe eta sustatzaileek idatzi duten proiektua hasieran onetsi dela eta jendaurrean dagoen bitartean alegazioen bat aurkeztuz gero, Udalak aldatu egin ahal izango du.</p> <p>* Jendaurrean erakusteko tramitea betetzeko iragarkia argitaratuko da BAOean, Udaletxeko iragarki oholtzan eta egunkarietan eta erreklamazioak aurkezteko 20 eguneko epea egongo da; iragarkia argitaratu eta biharamunetik zenbatuta (Eusko Legebiltzarreko ekainaren 30eko 17/1994 Legearen 9. artikulua; azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 86.2 artikulua) lotuta dagoena).</p> <p>Udalaren bulego teknikoetan lortu ahal izango dute interesdunek espedientea. Udaletxeko (Elexalde auzoa 1) 3. solairuan dago bulego hori. Kopia berriz Cianoplan enpresan (Getxon, Villa de Plencia kaleko 6an, beheko solairuan) lortu ahal izango dira.</p>	<p><b>ANUNCIO</b></p> <p><b>APROBACION INICIAL DEL PROYECTO DE REPARCELACION DEL AREA 24 C (BULEVAR DE UDONDO) DEL PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA</b></p> <p>Con fecha 27-1-03 se ha remitido el siguiente anuncio para su publicación en el B.O.B.:</p> <p>*Por resolución nº 12 adoptada en la C.M.G. de fecha 21-1-03, el Ayuntamiento de Leioa ha resuelto lo siguiente:</p> <p>* Aprobar inicialmente el proyecto de reparcelación presentado por diversos propietarios y promotores interesados en la gestión urbanística del Area 24-C (Bulevar de Udondo), del Plan General de Ordenación Urbana.</p> <p>* Notificar personalmente a los interesados en el expediente (propietarios y titulares de derechos), para que en un plazo de 20 días, contados a partir del siguiente al de la notificación, puedan examinar el mismo a efectos de complementar el trámite de Audiencia al Interesado, aportando la documentación y alegaciones que estimen oportunas. A este respecto se reitera que se trata de una aprobación inicial, redactada por los propietarios-promotores, pudiéndose modificar por parte del Ayuntamiento en base a las alegaciones presentadas en el período de exposición al público.</p> <p>* Complimentar un trámite de información pública general mediante anuncio en el B.O.B., tablón de anuncios del Ayuntamiento y prensa diaria, otorgando un plazo de 20 días, contados a partir del siguiente al de la publicación, a efectos de reclamaciones (artículo 9 de la Ley del Parlamento Vasco 17/1994, de 30 de junio, en relación con el artículo 86.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre).</p> <p>El expediente estará a disposición de los interesados en las dependencias de la Oficina Técnica municipal, sitas en la 3ª planta de la Casa Consistorial (Barrio Elexalde nº1). A efectos de disposición de copias, se podrán facilitar en la empresa Cianoplan, sita en Getxo, c/Villa de Plencia nº 6-bajo."</p>
---	---

Leioa, 2003ko urtarrilaren 31ean  
ALKATEA, Sin.- Karmelo Sainz de la Maza Arrola

Leioa, a 31 de Enero de 2003  
EL ALCALDE, Fd.- Karmelo Sainz de la Maza Arrola